

**BERAIEN KRISIA , BERAIEK ORDAIN DEZATELA!
HEZIKETA BEREZIAN , LAN HITZARMEN DUIN BATEN ALDE!**



Pasa den apirilak 30ean LAB, ELA eta STEE-EILAS sindikatuok, Bilboko Hezkuntza Delegaritzaren aurrean elkarteratze bat burutu genuen Lan Hitzarmenaren asmo baliogabeak salatzeko.

Hezkuntza Bereziko Lan Legepeko pertsonalgoak, zazpi urte daramatzagu Lan Hitzarmena berri gabe, lan hobekuntzak izan gabe:

Ordezkoek uda kobratu gabe.

Fisioek eta Lan Terapeutek beste profesional batzuen maila akademiko berdina izanik, soldatetan desberdintasunak izaten jarraitzen dute

Kolektibo guztiak azken 9 urtetan eros ahalmena galdu du.

Delegaritzak, LZak (lanpostu zerrendak) ez ditu eguneratu nahi, dauden lanpostu errealak ezkutatu.

Bestalde, Hezkuntza Sailak Heziketa Bereziko baliabideak murriztuz, dirua aurrezte erabakita dauka. Erabaki honek, heziketa bereziko langilegoan presio handiagoa jasotzea suposatuko du, beharrak dituen ikaslegoari laguntza ematea ezinezkoa izango delako.

Aski da! krisiaren aitzakia erabilia Hezkuntza Sailak dituen betebeharrak alboratu egin ditu, laguntza berezia behar duten ikasleekiko eta sektore honetako langileriarekiko duen erantzukizunari muzin eginez.

